



MENDI LASTERKETA

2026/07/11

IV. EDIZIOA

ARAUDIA

1. LASTERKETA DATA ETA ORDUTEGIA

Zaldutraileko hirugarren edizioa **2026ko Uztailaren 11an** izango da Zaldibarren. Irteera Zaldibarko udaletxean izango da.

Lasterketa luzea (19km):

Irteera: Goizeko 9:30etan, Zaldibarko Udaletxean.

Helmuga: Zaldibarko udaletxean. 13:00etan kontrola itxiko da.

Lasterketa laburra (14km):

Irteera: Goizeko 9:45etan, Zaldibarko Udaletxean

Helmuga: Zaldibarko udaletxean. 13:00etan kontrola itxiko da.

2. IBILBIDEEN AZALPENA

Zaldibar inguratzen dituzten mendiak eta bidezidor ederrak ezagutzeko mendi lasterketa da Zaldutrail.

Lasterketa biak Zaldibarko Udaletxetik irtengo dira eta lehenengo 4,5 kilometroak berdinak izango dira. Zaldibarko erdialdea atzean utzi eta Goierri auzorantz abiatuko dira lasterkariak. Lehenengo kilometroa asfaltoan izango da baina hortik aurrera mendira sartu eta lehenengo aldapa gogorak hasiko dira. 2,5 kilometrotan 250 metro positibo egin eta gero, Eitzaga auzorantz jaisteko ordua izango da, 2kilometrotako jaitsiera polita izango dute aurretik korrikalariek.

Esan bezala Eitzaga auzorarte lasterketa bien ibilbidea berdina izango da, baina auzo honetan lasterketek bide desberdina hartuko dute.



Lasterketa laburrak Eitzagatik Aixolako urtegi ederrera egingo du eta bertatik igotzen jarraituko dute korrikalariek Santamañezar (676M) tontorrera heldu arte. Santamañezarretik zuzenean dena behera egingo dute berriz Zaldibarrera heltzeko, Gazaga auzoa zeharkatuz.

Lasterketa luzekoek aldiz Eitzaga auzotik zuzenean Eguarbitzara (730M) doan aldapa hartuko dute, aldapa bertikala eta gogorra. Eguarbitzatik (730M) Aixolara egingo du lasterketa luzeak, bertan lasterketa laburraren ibilbidearekin bat eginez, hau da igoera Santamañezarrera (676M) eta bertatik zuzenean Zaldibarrera berriz.

3. IBILBIDEEN DATU TEKNIKOAK ETA PERFILAK



Lasterketa laburra:

- 14,5 km.
- 750 metro positibo.
- Altura maximoa 675 metro.



Lasterketa luzea:

- 19,5 km
- 1180 metro positibo.
- Altura maximoa 723 metro.



4. HORNIDURA PUNTUAK

Lasterketa bietan zehar korrikalariak hiru hornidura puntu izango dituzte. Hornidura puntuak hurrengoak izango dira:

LEKUA	19 KM	14 KM	LIKIDOA	SOLIDOA
EITZAGA	5	5	BAI	EZ
AIXOLA	12	7	BAI	BAI
SANTAMAÑEZAR	15,4	10,3	BAI	EZ

Hornidura puntuetan bakarrik izango da posible zaborrak botatzea (bertan ezarritako zabor ontzietan). Hornidura puntuetatik kanpo edo zabor ontzietatik kanpo zaborra bota ezker lasterkaria berehala geratuko da lasterketatik kanpo.

5. IZEN EMATEA ETA KUPOAK

Zaldutrailen parte hartzeko izen emateak **2026eko Apirilaren 17an 12:00etan zabalduko dira eta Uztailak 5 izango da izena emateko azken eguna**. Ezin izango da lasterketa egunean izena eman.

Izen emateak www.kronoak.com plataformaren bidez egin beharko dira.

16 urte da izen emateko adin minimoa, baina lasterketa egunean 18 urte baino gutxiago dituzten korrikalariak guraso edo tutorearen baimena eman behar izango diote antolakuntzari lasterketa egunean edo aurretik hurrengo emailera bidaliz: **zaldibarkomenditaldea@gmail.com**

Lasterketa bakoitzean korrikalari maximoak hurrengoak izango dira:

- **Lasterketa laburra:** 200 pertsona.
- **Lasterketa luzea:** 200 pertsona.

Lasterketetan parte hartzeko prezioak hurrengoak izango dira:

Maiatzak 31 arte:

- **Lasterketa luzea:** 22 euro.
- **Lasterketa laburra:** 15 euro.

*Lasterketa laburreko korrikalariak mangitoak erosi ahalko dituzte 5€ren truke, Maiatzak 31 arte.

Ekainak 1-etik - Uztailak 5era:

- **Lasterketa luzea:** 26 euro.
- **Lasterketa laburra:** 20 euro.

Ekainak 1-etik aurrera lasterketa luzeko parte hartzaileen mangito talla ez da bermatzen.

6. SEINALEAK

Ibilbidea behar bezala markatuta egongo da lasterketa bietan eta bidegurutze nagusietan bolondresak egongo dira arazorik ez izateko. Derrigorrezkoa izango da markatutako ibilbidea jarraitzea.

7. DORTSALEN BANAKETA, KONTSIGNA ZERBITZUA ETA DUTXAK.

Korrikalariak dortsala **Zaldibarko udaletxe plazan** jaso behar izango dute, hurrengo ordutegian:

- Lasterketa egunean: 8:15etatik - 9:15ak arte.

Kontsigna zerbitzua egongo da, **Zaldibarko udaletxe plazan** 9:15ak arte aukera egongo da motxila uzteko.

Korrikalariak lasterketa eta gero **dutxatzeko aukera** izango dute **Zaldibarko polikiroldegiko dutxetan**.

Dutxatzeko hiru aldagela egongo dira, mutilena, neskena eta etiketa bi hauetatik kanpo sentitzen diren pertsonentzako hirugarren aldagela bat.

8. DERRIGORREZKO MATERIALA

Lasterketan parte hartzeko derrigorrezko materiala eramatea derrigorrezkoa da eta antolakuntzak lasterketa aurretik edo ondoren konprobatu dezake.

Derrigorrezko materiala hurrengo izango da, lasterketa laburrean zein luzean:

- Zapatila eta erropa aproposa.

Gomendagarria da edalontzi edo soft flask-a eramatea hornidura puntuetan ura hartzeko, hauetan **ez baita plastikozko edalontzirik egongo**.

***Eguraldiaren arabera antolakuntzak derrigorrezko materialera zerbait gehiago gehitzeko eskubidea izango du, beti parte hartzaileei behar den bezala jakinaraziz.**

9. KATEGORIAK

Kategoriak hurrengoak izango dira lasterketa bietan:

- **Absolutua (emakumezkoak/gizonezkoak):** lasterketan parte hartzen duen edozein sartuko da kategoria honetan.
- **Zaldibartarra (emakumezkoa/gizonezkoa):** lasterketan parte hartzen duen eta zaldibartarra den edozein sartuko da kategoria honetan.

10. SARIAK

LASTERKETA LUZEAN:

1.NESKA	1.MUTILA	2.NESKA	2. MUTILA	3. NESKA	3. MUTILA
150 € TXAPELA KOPA 2026KO IZEN EMATEA	150 € TXAPELA KOPA 2026KO IZEN EMATEA	75€ KOPA 2026KO IZEN EMATEA	75€ KOPA 2026KO IZEN EMATEA	50€ KOPA 2026KO IZEN EMATEA	50€ KOPA 2026KO IZEN EMATEA

1.ZALDIBARTARRA (NESKA)	1.ZALDIBARTARRA (MUTILA)
KOPA	KOPA

LASTERKETA LABURREAN:

1.NESKA	1.MUTILA	2.NESKA	2. MUTILA	3. NESKA	3. MUTILA
TXAPELA KOPA 2026KO IZEN EMATEA	TXAPELA KOPA 2026KO IZEN EMATEA	KOPA 2026KO IZEN EMATEA	KOPA 2026KO IZEN EMATEA	KOPA 2026KO IZEN EMATEA	KOPA 2026KO IZEN EMATEA

1.ZALDIBARTARRA (NESKA)	1.ZALDIBARTARRA (MUTILA)
KOPA	KOPA

*Lasterketa bietako laugarren eta bostgarren sailkatuek ere hurrengo urterako izen ematea izango dute sari bezala.

11. ERANTZUKIZUN DESKARGUA

Kronoak plataforman izena ematen duten momentuan, parte hartzaileek “**erantzukizun deskargua eta gaitasun fisikoa**” dokumentua onartuko dute.

12. DESKALIFIKAZIOAK

Antolakuntzak probatik korrikalariak **deskalifikatzeko eskubidea** izango du hurrengo kasuetan:

- Markatutako ibilbidea ez jarraitzea.
- Dortsala agerian ez eramatea edo beste pertsona baten dortsala eramatea.
- Kiroltasun gabeko jarrerak izatea.
- Derrigorrezko materiala ez eramatea.
- Lasterketa egiteko egoera onean ez egotea.

Antolakuntzak korrikalari bat deskalifikatzeko erabakia hartzen badu, honek dortsala kendu eta antolatzaileei eman beharko dio. Zuzenean lasterketatik eta sailkapenetik kanpo geratuko da.

13. SEGURTASUNA ETA LAGUNTZA

Korrikalarien segurtasuna eta osasuna bermatzeko helburuarekin osasun

arloko langile langileak egongo dira ibilbidean zehar. Honek behar bezala identifikatuta egongo dira eta derrigorrezkoa da euren jarraibideei kasu egitea.

Lasterketatik erretiratu ezkerro, antolatzaileei jakinarazi beharko zaie lehenbailehen.

14. INGURUMENA

Derrigorrezkoa izango da ingurumena zaintzea eta errespetatzea. Lehenago aipatu den bezala guztiz debekatuta egongo da hornidura puntuetan jarritako poltsetatik kanpo zaborra botatzea, antolakuntzak ingurumena errespetatzen ez duen parte hartzaile bat ikusi ezkerro, korrikalaria zuzenean lasterketatik kanpo geratuko da.

15. ISTRIPUETAN LAGUNTZEA

Korrikalariren batek zauri edo istripuren bat izan ezkerro ibilbidean zehar, inguruko parte hartzaileak behartuta egongo dira laguntza ematera.

16. ANTOLATZAILEEN ESKUBIDEAK

- Antolakuntzak eskubidea du lasterketetan ateratako argazkiak, bideoak eta material guztiak iragarkietarako, harreman publikoetarako edo kazetaritzarako erabiltzeko.
- Iragarpen meteorologikoak direla eta lasterketak bertan behera geratu ezkerro, ez da izen-emateen dirurik itzuliko.
- Antolaketan araudia aldatzeko eskubidea du, beti parte hartzaileei behar den moduan informatuta.
- Ibilbidean zehar ikusleek txakurrak eraman ahal izango dituzte, baina beti lotuta joan beharko dira.
- Lasterketan parte hartzen duten korrikalariak ezin izango dute txakurrik eraman.

- Ezin izango da beste pertsona baten dortsalarekin parte hartu, antolakuntzak hau ikusi ezker dortsala kenduko dio korrikalariari eta sailkapenetik kanpo geratuko da.
- Eguraldi txarra dela eta, antolakuntzak hurrengo ahal izango du:
 - Ibilbidea aldatu korrikalarien segurtasuna bermatzeko.
 - Derrigorrezko materialean aldaketak egitea.
- Antolakuntzak edozein momentutan aldatu edo zuzendu dezake araudi hau.
- Araudia honetan zehazten ez diren puntu guztietan, Euskal Mendizale Federazioaren Mendiko Lasterketen araudian adierazitakoaren arabera jokatu da.